

EROSKI-REN "EMAKUMEAK LEKUKO" PROGRAMA: EGIAZKO ISTORIO AUSARTAK FEMENINOAN

- Lehen urte honetan hamasei emakume, osasun arloan gaurkotasunekoak diren askotariko gaietan adituak, EROSKIren "butaka gorrian" eseri dira Espainia osoan barrena.
- Programak ikus-entzunezko eduki eta formatu digital berriak estreinatuko ditu EROSKIren webgunearen bitartez
- EROSKIren Berdintasunerako Behatokiak 15 urte daramatza lanean gizon-emakumeen berdintasuna bilatzen

Elorrio, 2020ko urriaren 7a.- [EROSKI](#)ren "Emakumeak lekuko" programa lehen urteurrena betetzen ari da egun hauetan. Ekimen hori sortu zenetik, helburua izan da emakumeen esperientzia pertsonalak harilkatzea eta ahotsa ematea emakumeen ahalduntzearen bitartez.

Lehen urte honetan, askotariko alor sozioenpresarialetan diharduten hamasei emakumek partekatu dituzte beren bizipenak. "*Programak ikusgarritasuna eta aitorpena ematen dio gizonak kapitalizatu izan dituzten sektoreetan emakumeek jokatu duten rola. Gehienbat interesatu zaigu zer-nola erabaki zuten bide hori hautatzea. Zerk motibatu zituen egiten dutena egitera eta, batez ere, eredu gisa erakustea erronkak gainditzeko izan duten gogo*", esan du EROSKIren Komunikazio eta Marka arloko zuzendariak, Ainhoa Oyarbidek.

Programaren agertoki nagusia butaka gorri bat da, eta bere ibilbidean Espainiako leku asko pasatu ditu enpresa, medikuntza, ikerkuntza eta irakaskuntza arloan diharduten emakumeen lekukotasunak jasotzeko.

Covida, azken protagonista

"Emakumeak lekuko" programaren lehen elkarrizketan, Raquel Sesma ezagutu ahal izan genuen, AN barazki eta fruta Kooperatibako presidentea eta beste bost nekazaritza-kooperatibatako gerentea. "*Nire familian inor ez da jardun nekazaritzan*" aitortu zuen EROSKIk elkarrizketatu zuenean. Topiko asko puskatzeko balio izan zuen hizketaldi hark, "*ezagutza gehiago balioesten da emakumea edo gizona izatea baino. Inoiz ez dut neure burua diskriminatuta ikusi*". Produktua eta tokiko produktua gero eta presenteago daude kontsumitzailearen bizimoduan, eta Sesmak haren prestigioaren alde egiten du lan, "*oso*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



garrantzitsua da tokiko nekazariari laguntzea zeren eta hurbil-hurbileko baten ahalegina da, adiskide batena edo auzokide batena".

Esmeralda Gomezek ere klixek puskatzen ditu. Lizentziaduna da Matematikan eta Astrofisikan eta aldi berean Miss Cuenca, ama, margolaria eta erakartzen duen beste edozein arlotako ikaslea. *"Esku-jokoak egiten ikasi dut"*, aitortu zuen jostari EROSKIrekin egindako elkarrizketan. Gaur egun, bere bisita txartelak dio *Data Scientist* dela banku digitalean, eta jendarteratzailea finantza heziketan. *"Modu iraunkorrean bizi nahi baduzu, tokiko produktuak erostea gomendatzen dizut, horrela auzokideari laguntzen diozu eta, azken batean, laguntza hori bueltan datorkizu. Prezioei eta eskaintzari ere begiratu behar zaie. Batez ere, ez ezazula dirua alferrik xahutu".*

Gertatuko zela inor konturatu gabe, Covid-19a bihurtu da protagonista 2020. urte honen parterik gehienean. "Emakumeak lekuko" programak gaurkotasunarekin bat egin nahi izan du Deborah Garcia jendarteratzailearen gogoetak eskainiz, zeinaren YouTubeko kanala (*Deborahciencia*) erreferente bihurtu baita pandemiaren garaiotan. *"Komunikatzen dudan aldiro, zintzoa izaten naiz"* esan zion EROSKIri. *"Urteak daramatzagu esanez: arazo potolo bat datorkigula superbakteria batekin... eta birus batekin gertatu da. Gauza bera gertatuko da klima aldaketarekin"*. Zer ikasi argi ez duten neskatoei animoak ematen dizkie honela: *"Aukeratzen dutena aukeratzen dutela, bere gogokoa izan dadila"*.

Elkarrizketatuen zerrenda honako hauek osatzen dute: Miren Garmendia, Gipuzkoako Kofradien Federazioko idazkaria; Luisa Pablos marmeladaegilea; Eva Lafraya, Valle del Rincon SATeko presidentea; Paula Crespo dietista; Melissa Gomez nutrizionista; Carolina Peñalva, Citruspackeko koordinatzailea; Cayetana Lopez, Elikagaien Bankuen Bizkaiko biltegiko arduraduna; Arantza Eguzkiza, sagardogilea; Inma Estevez, NEIKEReko ikertzailea; Nagore Irazuegi errestauratzailea; eta Neli Zaitegi, EAEko Eskola Kontseiluko presidentea.

Weba eta podcasta

Gaur egun, eskuragarri daude bideoak [EROSKI](#)ren webgunean. Hemendik gutxira, beste atal bat estreinatuko du programak, eduki eta formatu digital berrieekin. *"Balantze ona egiten dugu. Bere gisa ari da handitzen programa, interesa pizten duelako, eta, horregatik, hura hobetzeko erronka dugu, istorioetatik hasita eta babes handiagoa emanda. Saiatuko gara unean-unean gaurkotasuna duten istorioak harilkatzen, eta podcastaren formatua*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



landuko dugu, zeinak bat egingo baitu orain arten lantzen ari ginen ikus-entzunezko bideoaren formatuarekin", iragarri du Oyarbidek.

Mende erdia genero berdintasunaren alde

Gizon-emakumeen aukera berdintasuna sortu zenetik da oinarrizko printzipio estrategiko bat EROSKIren kudeaketan. Ohikoa eta onartua zen emakumea lan munduan baztertzea, eta EROSKIk sorreratik egin zuen apustu emakumeen lanpostuak sustatzeko, zeinetan emakumeek beren kideen baldintza beretan erabakitzen baitzuten. Kooperatiba, esaterako, banaketaren sektoreko lehen enpresa izan zen, emakume bat izendatu zuena Espainian Hipermerkatu bateko gerente, baita etxekoande baten lana diru aldetik baloratzen ere: 95.000 pezeta zekarren EROSKIk 1988an argitaratu zuen azterketa estatistiko berritzaile hark; helburua zen emakumeek etxean egiten zuten lanaren balioespena gizartean goratzea.

Emakumeak gehiengo dira EROSKIren lantaldean (%78), eta, gainera, %72k erantzukizuneko karguak dituzte, sektoreko batezbestekotik oso gora. Hala erakusten du bai Zuzendaritza Kontseiluan eta bai Kontseilu Errektorean dagoen parekidetasunak.

Hamabost urte daramatza EROSKIk etengabeko lanean *Berdintasunerako Behatokiaren bitartez*, eta hain zuzen erakunde horrek zaintzen du printzipio hori erakunde guztian errespetatuko dela.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)